

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 679/2024 Erabakia, azaroaren 26koa. Onestea Rakel Molina Pérez konfiantzako eginkizunetarako behin-behineko langilearen kargu uztea

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 446/2024 Erabakiaren bidez, Rakel Molina Pérez izendatu zen, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostuan.

Nahiz eta behin-behineko langileek beren karguak modu automatikoan uzteko data den konfiantza edo aholkularitza ematen dioten karguak bere postua uztearena, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 2. Atalean jasorikoarekin bat etorriz, foru administrazioari dagokio esanbidezko ebazpena ematea interesdunarentzat.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan esleitutako eskumenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Rakel Molina Pérez behin-behineko langileek betetzekoa den konfiantzako lanpostutik kentzea.

Bigarrena. Kargu uzte horrek gaurtik aurrera, 2024ko azaroaren 26a, izango ditu ondorioak, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuaren kargu uztearen ondorioz, berak hala eskatuta. Hori guztia, erabaki hau ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena. Ebazpen horren kopia zigilatua helaraziko zaio interesdunari.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE